



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.05.02

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko maiatzaren bian, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	
Idazkaria:	1. Aurreko akta onartzea.
Begoña Garmendia Vazquez	2. Tolosaldea Garatzen 2018ko urteko udal ekarpena.
Kontuhartzailea:	3. 17/2018 faktura-zerrenda.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko apirilaren 23an egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. TOLOSALDEA GARATZEN-I 2018KO URTEKO UDAL EKARPENA.

I. 2018ko martxoaren 26an, 2655 sarrera zenbakiarekin, Tolosaldea Garatzen eskualdeko agentziak ondorengo dokumentazioa erregistratu zuen:

2018ko ekarpena egiteko eskaera.

2017ko abenduaren 19an Tolosaldea Garatzeneko Batzar Orokorraren bilerako akta.

2018ko Gestio Plana.

II. Tolosaldea Garatzenek, 2017ko abenduaren 19ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, aurkeztu du 2018. urterako Tolosako Udalak Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena. Ordainketa bi zatitan egitea erabaki zen.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako Udalari dagokionez, ekarpen honen kopurua hau da:

2018ko Gestio Plana jorratzeko 130.975,00 €

Lehenengo ordainketa (2018/03/30ean) 65.487,50 €

III. Tolosako Udaleko 2018ko aurrekontuan, 1100.422.01.430.10 partidan, aurreikusten dira 130.975 euro ekarpena egiteko.

IV. -2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17.1.25 artikuluan jartzen duenaren arabera, udalerriek, besteak beste, honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: tokiko ekonomia eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo politika.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea TOLOSALDEA GARATZENen 2018ko ekarpena: 130.975,00 € euro.

BIGARRENA.- Lehenengo ordainketa egitea, hau da, 65.487,50 euro.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Enplegu Departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Tolosaldea Garatzeni.

3. 17/2018 FAKTURA-ZERRENDA.

Kontuhartzaitzak **17/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **69.399,79 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-17 /2018 faktura-zerrenda onartzea.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA